EUSKAL-FÉSTAK URNIETAN.

AZALDEA. [1]

IZKRIBATZALLEEN INDAR NEURTZEA.

Donostian argitaratzen dan Errebista EUSKAL-ERRIA deritzan, eta joan dan illeko 20-garren egunari dagokan 220-garren lumeroan aditzera eman zan, nola On Antonio Abbadie Jaun euskerazale argidotarrak aspaldi jarritako urteoroko euskal-féstak aurten egingo ziran Urnietako erri onetan, eta Erriko Bilguma edo Ayuntamentuak señalatu zuela oetarako Agorrillaren 29-garren eguna. Orduan esanari dagokala adierazten du, bada, euskarazko josta-guda onetan saria irabazteko asmoarekin egin bearko diran izkribu gayen esakayak dirala:

1.koa *Zeruko martitzen buru done Migel Goiaingeruaren onran eta alabantzan:* itz neurtuak, gichienez 16 biurtze.

2.ena *Beingoan aberastutzeko asmoarekin Amerikara dijoazen euskaldunak daramazkiten desengañioak, gazte zentzu gabeak ara joatetik atzeratu ditezen:* itz neurtuetan edo larrietan, eta izan diteke kondaira oraindik argitaratugabea, norbaiten gertakariak, edo gis onetako beste izkriburen bat.

3.ena *Euskera, lekuan lekuko itzkerakiñ bere oñ-oñean gordetzeko: ¿zéiñ dira Euskal-Erriko buruzayak, au da, Diputazioak eta*

(1) Rogamos a nuestros estimados colegas locales y regionales, se sirvan publicar integro este Programa.

Ayuntamentuak artu ditzatekean neurririk errazen eta egokienak? Itz larrietan.

Iru izkribu gai oetatik, edo itzkribatzalleak nai duen beste gai batean lanik onena itz-neurtuetan egiten duenari emango zayo saritzat *makilla* apaiñ bat, ontzáko urrearekin, eta izkribu sariztatuaren 200 moldaera: ala ere, itz neurtuetako lana baño obeto moldatua balegoke itz larrietakoa, onen egilleari emango zayo *makilla.*

OARKERAK

1.koa Josta-guda onetarako aurkestatzen diran lan guziak izkribatu bear dira euskeraz, baña izkribatzalleak nai duen euskal-errietako edozeiñ itzkeratan.

2.ena Lan oek guziak bialdu bear dira ill onen 15-garren eguneko arratsaldeko zortziretako Bayonara *korrioz,* paper bilgo edo ichietan, gañean zuzenbide au dutela: *Mr. Lamaignère, rue Chégaray, 39, á Bayonne;* eta jaun onek bialduko diozka, oek ikusi eta epaya emateko jarria dagoen Batzarreari.

3.ena Paper bakoitzean ipiñiko da lan bakoitza, berari ezagungarri bat jarririk, eta onen barruan ichia ere egongo dan beste papercho batean, ipiñiko dira izkribatzallearen izen-lonbreak, eta bere bizilekuaren señak barrendik, eta ezagungarri ura berpera kanpotik.

* * *

BESTE JOSTA GUDAK.

1.ko *saria.* Ontza bat urre, Ayuntamentuak aukeraturik ariko diran lau bersolariai.

2.ena 400 pezeta, lauk lauri luzean jokatuko dan pelota partidua irabazten dutenai.

3.ena Ontza bat urre, partidu onetan, naiz irabazle, naiz galtzalle izan, ongien jokatzen duenari.

4.ena Ontza bat urre eta sedazko gerrikoa, blekan eskuz esku bi pelotarik jokatuko duten partidua irabazten duenari.

5.ena 100 pezeta partitzeko, euskal-erriko kastako bei gorri edo ori esnetsuenen jabeen artean.

6.ena 50 pezeta, irrintzirik bikaiñena egiten duenari.

7.ena 100 pezeta partitzeko aukeratuko diran oñezko lau korrikalarien artean.

OARKERAK.

1.koa—5.garren 6.garren eta 7.garren saria irabazteko jokuetan parte artu nai dutenak, jakin-erazi bearko diote ala, itzez edo izkribuz, Alkate jaunari, ill onen 24.garren egunaren arratseko zortzietarako.

2.ena Luzeko pelota partidua jokatuko da lauk lauri, iru ontza lauren bitarteko pelotarekiñ, eskuz saka eta guante motzakiñ, lenagoko oitura zarrera. Ala partidu au, nola blekakoa jokatu bear dutenak, Ayuntamentuak aukeratuak izango dira.

3.ena Bersolarientzat señalatuko da batzarre berezi bat, beste bat pelotarientzat, eta orobat egingo da bei esnetsuenakiñ eta korrikalariakiñ; batzarre oek begiratuko die kakoitzak bere lanbideari, eta erabakiko dute zéiñ diran saria irabazi dutenak.

FEST' OEK EGINGO DIRA IRU EGUNEAN, ERA ONETAN:

Agorrillaren 29.garren egunean.

Eguarteko amarretan Eleizan izango da Meza nagusia, zeñean Probinzi onetako sermoilari onenetako On Patrizio Orkaiztegi-koak azalduko dituen gure goartari Done Migel Goiangeruaren doai, birtute eta gloriak.

Arratsaldeko iruterdietan erriko echean irakorriko da josta-guda onetarako aurkestu dan izkriburik onena, eta emango zapo dagokan saria.

Ondorean kantatuko da zortziko bat, piano soñuaren laguntzarekiñ.

Illunabarrean plazan aterako da zortziko-dantza, chistu-soñu, ṫun-ṫun eta atabalarekiñ.

30-garrenean.

Goizeko amarretan luzeko pelota partidua.

Arratsaldeko iruretan, On Marzelino Soroa, euskal-izkribatzalle bikaiñ eta jostalluaren jostaketa edo komedi bi:

Lenbiziko, *Barrenen arra* deritzan moldaera berria.

Bigarren, *Anton Kaiku* izendatzen dan jostaket menditarra.

Ondoren izango da bersolarien guda, doñu zarretan.

Urri-illaren 1-koan.

Goizeko bederatziterdietan, blekako partidua, erri-echeko arkupeetan.

Ondorean, korrikalarien guda.

Arratsaldeko iruretan bei esnetsuen probaketa, ondoren beste jostaketa farragarri batzuek, gero irrintzilarien guda, eta bukatuko dira fest' oroigarri oek azkeneko bi egun oetako irabazdunai sariematearekiñ.

Urnietan, 1886-ko Agorrillaren 9-garren egunean.—Erriko Bilguma edo Ayuntamentuaren izenean, JUAN BAUTISTA ICHASO-ASU, Alkateak.

MISCELÁNEA

S. M. la Reina D.ª Isabel ha honrado con su visita en el presente verano á la Ciudad de San Sebastian,

El recibimiento que se la hizo á su llegada la noche del 9 de Agosto, y la despedida del dia 4 del corriente, fueron sumamente corteses y dignos de la cultura de nuestra Ciudad y de la augusta Señora á quien se dedicaban.

Durante su estancia en el palacio de Ayete, en el que se ha hospedado, la Reina D.ª Isabel ha visitado diversas Comunidades religiosas y Establecimientos benéficos, asistiendo la tarde del 14 de Agosto á la clásica Salve, y la mañana siguiente á la solemne Misa mayor que se celebraron en la Parroquia de Santa María, que conmemoraba aquel dia la festividad de su excelsa Patrona.

El Ayuntamiento de Pamplona ha acordado contribuir con 250.000 pesetas á la construccion del Manicomio basco-nabarro.